

1.2. Nire familia



Bloke honen helburua aurreko blokean ikasitakoa praktikan jartzea eta familia-harremanak ikastea da. Garrantzi handiagoa emango zaio besteen aurkezpenari.

Gaiaren aurkezpena

Joxek eskatuta, Iratik bere familia aurkeztuko du, eta hori izango da umeeek euren familiaren aurkezpena egiten ikasteko edukiko duten eredia.

Gaiaren lanketa

Alde batetik, umeeek nor, nork eta noren kasuko izenordainak erabiltzen ikasiko dute eta, bestetik, familia-harremanen hiztegia ikasten doazen heinean, aurkezpeneko nozioak landuko dituzte.

Azken xedea

Umeeek euren familiaren arbola genealogikoa egingo dute. Era berean, ahozkoari emango zaio garrantzia eta euren familia ahoz aurkeztu beharko dute.

Azken proiektua

Azken proiektua koadernorako euren familiako kide baten aurkezpena emango dute idatziz.